

EGANek TXILLARDEGI GOGOAN: hemen idatziak eta huntaz eta hartaz

Duela hamar urte, 2012ko urtarrilaren 14an, hil zen Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, XX. mendeko euskal kulturaren erreferente nagusietako bat, egile, eragile eta aitzindari ukaezin eta eraginkorra arlo batean baino gehiagotan, hizkuntzalaritzan, soziolinguistikan eta literaturan batez ere. Euskal nobelagintzaren eta saiakeragintzaren berritzaile modernizatzailea izan zen, eta euskara batuaren bultzatzaile nagusietakoa, besteak beste.

Kontuan hartuta Txillardegik *Eganekin* gertuko harremana izan zuela, batez ere aldizkariaren hastapeneko urteetan, eta haren ekarpen erraldoiak ez duela oraindik behar adinako aitopenik jaso, hainbat eragilek eta idazlek aldarrikatzen jarraitzen duten bezala, bidezkoa da aldizkari honek hari tarte bat eskaintzea.

Alaitz Aizpuruk eta Joxe Austin Arrietak idazlan hauek argitaratuz Txillardegi gogoratzeko eta omentzeko bide horretan lagundu nahi du Eganek.